

IL AZALPEN PROBA • <i>Kearen fiordo</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ik* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Zer gertatu da, Jon? —galdetu dio Hura*k* apaiz protestanteari, euskaldunak bistatik galtzearekin batera.

—Gauean entzun dut euskaldun bat sartu dela zure gelan, eta Pedro ohartarazi besterik ez dut egin.

Minduta sentitu da Hura, apaiza bere bizitzan sartzen ari dela ikusita.

—Jakin ezazu maiteminduta nagoela gizon horrekin, eta ez dudala utziko inork sentimendu hori zapuzten —ohartarazi dio, eta apaizak lanak izan ditu emakumeak begietatik isuri duen sugarrari eusten.

—Ez da hori nire asmoa, baina zuen harremanak arazo ugari ekar ditzake. Jakin ezazu arrantzaleen egoera ez dagoela batere bare eta, gainera, zure aitak esan dit berehala ezkonduko zarela Jon Gissurarsonekin.

—Utikan, ez naiz gizon horrekin sekula ezkonduko. Jakin nahi baduzu, nahiago dut infernuko sugarretan erre, eta espero dut nire aita ez babestea, bestela zuri ere damutuko zaizu.

Mehatxu itxurako azken hitz horiekin, etxetik irten eta mendian gora joan da Hura, Urridavatn aintzirako ur beroetarantz. Han, gorputz biluzia epeltasunari emanda, amorrua leundu du astiro-astiro...

IL AZALPEN PROBA • <i>Kearen fiordoá</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Ganduak dena hartu du bere mantupean, harriak eta bihotzak, paisaiak eta gogoak. Jon *Jakitunak* lagunduta eman diete lur ekaitzean hildako hiru gizonei, hileta elizkizun hunkigarri batean. Gogorra izan da adiskideak betiko agurtzea, gogorra bezain sendagarria, agurtzearekin batera, zama arindu dutela ere sumatu dutelako bat-batean. Eta ahuleziari indarra lapurtu diote, pixkanaka aurrera begiratzen hasteko, berriro ere.

Denak ez datoz bat egin beharreko urratsei buruz. Reykjarfjordurretik gertuko Arnes herrixkako apaizak, Andres Adamssonek, Jakitunaren adiskide handiak azaldu die Horneko lurmuturra igarota, Leirufjordurren nekazari bat bizi dela eta belaontzi handi baten jabea dela. Zenbaterainoko handia? Ez da, noski, kontinentean egiten diren galeoi horietako bat, baina itxaropena eman die gizonak: agian ontzi horrekin gai izan daitezke ozeanoaren ur handietan murgiltzeko.

Zalantza handiak dituzte marinelek, ordea. Hobeto esanda, ziur daude ez dela posible izango, denak ez badira ere, gutxienez gizon talde bat, Eskozia edo Irlandaraino iritsi, eta behar bezalako ontzi batean itzultzea gainerakoak jasotzera.

IL AZALPEN PROBA • <i>Kearen fiordoia</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Ezin izan dio eutsi euskaldunek eragindako zauri larriari eta, odol hustearen eta hilabeteotako goseak eragindako ahuleziaren ondorioz, hil egin da arrantzale gaztea. Goizaldean azaldu dio gertatutakoa erasotzaileen taldeko buruak, Jon Fergussonen, Jon Grimsson artzain protestanteari, Stadurreko elizara hurbilduta. Heriotzaren berri izan eta berehala abiatu da erlijiosoa hildakoaren herrira, Holmavikera eta, han, ezkutuan eman diote azken agur kristaua, zenbait adiskidek, anai-arrebek, emazteak eta hiru seme-alabek.

Jainkoaren bedeinkapena jasota, lur eman diote hilerriko bazter batean, haren gurasoak lurperatuta dauden toki berean, eta orduan bukatu dira apaiz protestantearen zeregin erlijiosoak, “Jaunak har dezala bere erresuman” erregutu eta gorpua lurrez estaltzeko baimena eman ondoren.

—Lehenbailehen joan behar dut Ogurrera, Ari Magnussoni egoeraren berri ematera –desenkusatu da Fergussonekin, hileta amaitu, senideei doluminak eman eta alde egin baino lehen.

Entzundakoak ez du ezustean harrapatu, eta harekin joaten uzteko eskatu dio arrantzaleak apaizari.

—Ez, hobe da oraingo bakarrik joatea. Geroago izango duzue denbora magistratuarekin zorrei buruz mintzatu eta hitzartutako dirua jasotzeko.

Zalantzarik gera ez dadin, hitzartutakoaren berri gogorarazi dio Fergussonen apaizari: 30 dukat gizon bakoitzarentzat, eta 200 hildako arrantzalearen emaztearentzat.

IL AZALPEN PROBA • <i>Kearen fiordoa</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Burua hamaika pentsamendutan zuela ikusi ditu Garziak gizon armatuak euren txabolara hurbiltzen. Txalupa batean ezkutatuta jarraitu du ondorengo guztia, ikarak airean. Isilik geratu da, berehala ulertu baitu isilik, hotsik atera gabe bakarrik, jarraitu ahal izango duela bizirik.

Kandelen argiaz gidatu dute eraso, baina ongi bereizten dira erasotzaileak eta haien itzal luzeak. Bi dozena inguru dira, eta aurpegia estali gabe egin diete eraso baleazaleei. Azkar gertatu da dena. Tiro hotsak, kolpeak eta garrasiak. Ondo-ondoan entzun ditu Garziak tiroak, bere ezkutalekutik.

Instant bat besterik ez dute behar izan erasotzaileek barruko guztiak akabatzeko; hamahiru lagun guztira. Oihuak eta tiroen hotsa isildutakoan ulertu du Garziak dena amaitu dela, adiskide guztiak hilda daudela, eta handik bakarrik alde egitea beste aukerarik ez duela. Hots, ez duela modurik haietako inor salbatzeko.

Triskantza amaituta, gorpuak jaso, txalupetan zamatu eta itsasaldera abiatu dira hiltzaileak. Kostaldetik urrutiratu ondoren, hondora bota dituzte karel gainetik.

IL AZALPEN PROBA • <i>Kearen fiordo</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua **–IL lanean egin duzun bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

—Berriz diot: ez dizuet ezer zor eta, besterik ez baduzue, arren, nire etxetik alde egiteko erregutzen dizuet. Zeregin ugari daukat.

—*For ju mala gissuna*. Ez zara guregandik hain erraz libratuko, alajaina. Norbaitek esan digu zuk zerbait dakizula Eyjarren pairatu genuen erasoaz. Eta, bide batez, beharbada badakizu zerbait lapurtu diguten upel bati buruz ere.

Ahots mehatxagarriz mintzatu zaio Martin artzain islandiarrari, atorratik helduta eta begiradari eutsita. Gizonaren ikara ere sentitu du gertutik, gizaseme itzela baita Villafranca gaztea.

—Gezurretan ari zara. Nire etxetik alde egin ezazu, Jainkoaren izenean.

Martinen gizonetako batek, Blas Aroztegi izeneko Hondarribiko gazte gihartsu eta oldarkorrek arkabuza zuzendu du apaizaren burura.

—Gorde hori Blas –errieta egin dio kapitainak, haserre, eta berehala gorde du arma saial barruan.

—Bagoaz, baina jakin ezazu Jaungoikoak dena jakiten duela eta kontuak eskatuko dizkizula haren erresumara hurbiltzen zarenean.

—Utikan, utz nazazue bakean –oldartu zaie islandiarra, egin dioten mehatxuarekin igarotako ikara gainditu eta berpiztu antzean.

IL AZALPEN PROBA • <i>Kearen fiordoa</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Besterik ez du behar izan magistratuak. Garrasika hasi da. Inguratuta daudela eta kanpora irteteko agindu die euskaldunei: erregearen aurkako goi-mailako traizioa leporatzen zaiela, eta ez dutela irtenbiderik. Jon *Jakitunak* itzuli dizkie Ari Magnussonen hitzak etxola barrukoei.

Latinez erantzun dio Martinek, isilune luze eta sakon baten ondoren.

—Ez dugu inor traizionatu. Traizionatu gaituen bakarra zu zara, gure arteko akordioa sutara botata. Ahaztu al zaizu duela bi urte sinatu genuen ituna? Ez al duzu emandako hitza bete behar? Gainerakoan, ez diogu inori kalterik egin. Bizi besterik ez dugu nahi, eta gure herrira onik itzuli, ahalik eta lasterren.

Jon Grimssonek hartu du hitza, Martinek bukatutakoan, eta hiltzeko mehatxu egin ziotela egotzi die euskaldunei.

—Hori egia da, eta barkatzeko eskatzen dizut, bihotzez, denon jainko kristauaren izenean.

—Barkatuta zaudete, jainko barkaberaren izenean –erantzun dio Grimssonek.

Hitzok entzun eta beharbada baketsu datozela pentsatu du Martinek. Itzalak ere ez dira mugitzen, eta isiltasuna erabatekoa da, haizea ere mutu geratu dela baitirudi. Zer egin ari dira erabakitzen euskaldunak, elkarri hitzak xuxurlatuz: errenditu edo ihes egiten saiatu.

IL AZALPEN PROBA • <i>Kearen fiordoa</i>	
Kodea*	Taldea
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor*ki* idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**IL lanean egin duzun bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 300-400 hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Sudaviken epaileek emandako ebazpena betetzera gatoz. Ezin dugu besterik egin –ihardetsi dio magistratuak.

Hori esaten ari den unean irten da Martin gordelekutik, lasai eta baketsu. Lurrean utzi du bere arkabuza, eta besoak altxatu ditu, eraso egiteko asmorik ez duela erakusteko. Aurpegian ez du tentsioaren arrastorik eta bake sentrazio bitxia isurtzen du haren gorputz sendoak.

Ari magistratuarengana hurbildu da, patxadaz, eta bostekoa luzatu dio, bakea nahi duela adieraziz. Norbaitek, baina, aizkoraz eraso dio atzetik, eta zauri larri bat egin dio bularraldean. Minak erasanda, lasterka irten da Martin, eta jauzi egin du itsasora, bat-bateko tiro zaparradari txiripaz ihes eginda.

Izoztutako uretan igeri joan da itsas barrenera. Odol ugari galtzen ari da beso eta bular arteko zauri sakonetik, baina ur hotzak baretu dio mina, eta ihes egitea besterik ez dauka buruan, nora berdin dio. Inguratutako animalia da Martin, heriotzari ihesi. Ternuan adiskide lapurtar bati ikasitako bertso batzuk etarri zaizkio orduan burura, eta hortz artean errepikatzen ditu, hitz horietan egoerari aurre egiteko adorea aurkitu izan balu bezala.